# Gotzon Bidaurratzaga medikuaren *Argija kirijotz-alija* liburuxka (1927)

*Anjel Bidaurrazaga*

EHUko Medikuntza eta Odontologia Fakultateko irakaslea

**Laburpena:** Artikulu honetan, sendagile naturista izan zen Gotzon Bidaurratzaga aurkeztuko da. Jaun honek, euskaraz idatzi zuen artikulu labur bat, argiak giza gorputzari nola eragiten dion azaltzen duena. Idazlearen historiak eta naturismo-medikuntzari egindako ekarpenak artikuluan zehar aukera emango digute idazlea bere garaian kokatzeko, XX. mendearen hasieran zientziari buruz euskaraz idatzi zuten bakanetako bat baita.

**Abstract:** In this article we present a brief work written by the naturism doctor Gotzon Bidaurratzaga in Basque language in 1927 about the influence of the light in the human body. The writer's biography as well as his participation in the Naturism medical movement allows us to situate the context of one of the few examples of science writer in Basque in the beginning of the XX century.

## SARRERA

Euskaraz egindako zientzia-prosa historiaurrea aztertzen jarraiki, medikuntzaren alor bateko adibide bat dakargu hona, hain zuzen ere euskal naturismoaren aitzindari izan zen Gotzon Bidaurratzaga medikuaren ibilbidea. Honek, balioko digu euskaraz argitaratutako testu batek XX. mendearen hasieran eginak zeuden ahaleginetara hurbiltzeko. Testu ezezagun hau berreskuratu eta argitara ekarri nahi izan dut lan honen bidez.

## BIOGRAFIA (1)

Gotzon Bidaurratzaga Lazpita Bizkaiko Erandioko Asua auzunean jaio zen 1882.ko martxoaren 1ean Mitxelena baserrian. Bi urte zituela bera ama hil egin zen eta haurtzaroan baserriko lanetan aritu zen. Urduñako ikastetxean ba-

txilerra egin zuen eta ondoren Nautikako ikasketak ere. Bere aitak lur sail batzuk saldu ondoren Medikuntza ikasteko aukera izan zuen Valladoliden.



Gotzon Bidaurratzaga Lazpita (1882-1971)

Ikasketak amaituta lanean hasi zen Gatikan eta ondoren Lutxanan. Txileraino itsasontzi-sendagile moduan joan zen, hainbat etorkinen osasun arduradun gisa. Handik itzulita Arabako Arespalditzako herri mediku bezala jardun zuen, eta urte batzuen ondoren oftalmologiako espezialitatea egin zuen Madrilen. Arespalditzan tifus epidemia bati aurre egin behar ziolarik, denbora eskasiak bultzatuta gaixo gehienei tratamendu arruntak agindu eta emaitza ezin hobeagoak jaso zituen, baina bere azken gaixoari orduko botikak agindu zizkion eta hauxe izan zen bere hildako bakarra; porrot honegatik medikuntza farmakologiakoaren mesfidantzarako joera piztu zitzaion. 1918. urtean gripe epidemia handian, Arespalditzatik laguntza eskatu zioten eta orduan ere denbora faltagatik hiru astean zehar higiene-metodo soilaren laguntzaz aritu zen gaixoak sendatzen, eta orduan ere emaitzak ezin hobeagoak lortu zituen.

Ondoren Bilboko Ledesma kalean, oftalmologiako kontsulta ireki zuen. Manuel Etxebarria Erandioko sendagile lagun batek, 1918.ean argitaratutako Vanderren liburu bat gomendatu zion: «*El diagnostico por el iris*»(2).

Liburua irakurri ondoren, mediku-bizitzan erdietsiriko eskarmentuaren laguntzarekin iridiologiaz aritzea erabaki eta hala egin zuen, sutsuki egin ere; horrela 1923. urtean «*El diagnóstico por el iris*»(3) idatzi zuen, Ruiz Ibarra sendagile naturistaren hitzaurrea bat gehituta. Urte horretan Donostiako Novedades antzokian hitzaldi bat eman zuen euskaraz eta handik artikulu bat idatzi ere izenburu honekin: «Argija kirijotz-alija»(4) 1927. urtean argitaratua. Handik bi urtera beste liburu bat ere idatzi zuen:»*Fundamentos científicos del naturismo*»(5).

1936. urtean Bilbotik ihes egin zuen Mexikora. Bertan sendagile bezala lanean jarraitu zuen eta 1945.ean itzuli zen bere lehengo bizitokira, Bilboko Artxandako baserrira. Gerra-garaitik 7 heriotz-zigor egotziak zituen, baina barkatu zizkioten. Ondoren beste hiru liburu argitaratu zituen, guztiak naturismoaren ildotik: 1961.ean, «*La dieta natural. Regeneración humana con las frutas*» (6), 1964.ean «*Ayunoterapia y el matrimonio*»(7) eta «*No busques lo que tú tienes*»(8), Mexikoko erbeste garaietan idatzitakoak. 1971. urtean hil zen bere Artxandagoikoa baserrian.




1923. urtean Gotzon Bidaurratzagak iridiologiari buruz egin zuen lehen argitalpena

## NATURISMOAREN HISTORIA LABURRA (9)

Naturismo-medikuntzaren hasiera Hipokratesek erabilitako oinarri fisiologikoan dago, bere *Corpus Hippocraticum*-ean agertzen den *physis* edo gorputzaren sendaindarrean (homeostasian). Hau da, naturak sendatzeko bide duen berezko gaitasuna paradigmatikoa da naturismo medikoan, eta horregatik, gaixotasunaren aurrean hartzen den jarrera oso desberdina da ohiko medikuntzaren aldean, bai diagnostikoan bai tratamenduan ere.

Greziarrek zuten naturaren ikuspegian lau oinarrizko elementuak zeuden (airea, ura, lurra eta sua) eta hauek beren baliokideak edukiko lituzkete giza gorputzean, klasikoki deitu diren lau humoreak: odola, flema edo mukia, behazun horia eta behazun beltza. Guztien arteko oreka osasun-egoera adierazlea izango litzateke, baina haien arteko desorekak berriz gaixotasuna eragingo luke. *Physis*a orekara itzultzeko gaitasuna izango litzateke. Hipokratesek gizon osasuntsuaren ohitura egokiei dieta deitzen zien eta kontzeptu horren barruan**,** janariaz gain, gizarte maila eta jakituria ere sartzen zituen.

Hasierazko Medikuntzako kontzeptu hauek aldatuz joan dira historian zehar baina sendaindarraren ikuspuntua naturismoan egon da beti. Naturaren aurrean izan den jarrera-aldaketek ere eragina izan dute**,** medikuntzaren historian: jainkoekiko beldurra, naturaren ikerkuntza eta gizatasunaren garaipena errenazimentuan. Vesalioren (XVI) ikerketa anatomikoak baliagarriak izan ziren humoreen teoria baztertzeko, zuntzak aldarrikatu baitziren giza gorputzaren osagai nagusi moduan humoreen ordez. XVII mendean Sydenhamek gaixotasunen sailkapen klinikoa egin zuen eta sendaindarrari beste izen bat jarri zion: «*vix medicatrix*». Hurrengo mendeko arrazionalismoak indar handia eman zien klinika eta terapiaren sendotasunari.

XIX. hasieran Europaren erdialdean hidroterapiak zuen indarrak abiada eman zion naturismo-mugimenduari. Sebastian Pneipp, Preissnitz, Rausse eta beste sendagile batzuek hidroterapiaren erabilpena sustatu zuten eta horrekin batera dieta, kirola, argia, airea eta abarren onurak aldarrikatu zituzten; beraz, naturan dauden elementuak goraipatu zituzten botiketan oinarritutako medikuntzaren aurrean. Naturaren aldeko jarrera honi, barazkizaletasuna eta hasierako ikuspegi «ekologista» gehitu zitzaizkion, gizarte- zein politika-esparruan.

## ESPAINIAKO NATURISMOA

Naturismoak, Alemanian hidroterapiarekin lotu bazen ere, Espainian barazkizaletasunarekin lotura izan zuen hasieratik. Mugimenduak, hiru koka-

gune garrantzitsu izan zituen, Bartzelona, Madril eta Valentzia. 1896. urtean Pneipp sistemaren lehen denda ireki zuen Jaime Santiverik Bartzelonan, eta hasieran jantziak saltzen bazituen ere, laster farmazia bihurtu zen bere denda eta naturismoari lotutako produktuak saltzen hasi zen: liburuak, sendabelarrak, janari biologikoak… XX. mendearen hasieran ere barazkizale elkarteak sortu ziren Madrilen eta Bartzelonan. Elkarte hauekin batera mediku naturisten beharrak hasi ziren, hasieran goi maila sozialeko kideekin osatzen zirelako. 1918-19.eko gripearen osasun-krisiak (250.000 hildako Espainiako estatu lurraldean) (10) medikuntzarenganako mesfidantzak ugaritu zituen beste motetako terapien onerako. Urteak aurrera joan ahala, mugimendu hau adar bitan banatzen hasi zen, batetik maila herrikoi ezkertiarra eta bestetik maila zientzialariena edo sendagileena.

Gerra zibila heldu arte, ekimen ugari egin zituzten, tartean aldizkari ugari bakoitzaren ikuspegia (eta interes komertzialak) defendatzeko. Guda aurretik, 1933. urtean, mediku naturistak Bussot bainuetxean (Alacant, Herrialde katalanak) kongresu bat antolatu zuten. Bertan bi lemapetan jardun baitzuten: zientzia eta moralitatea, biluztasunetik eta sasimedikuengatik bereizteko. Kongresu horretan parte hartu zuen Gotzon Bidaurratzagak ere.

1936. urtean hasitako gerrak eten egin zuen mugimendu hau, elkarteak legez kanpo jarri eta bere kide ugari giltzapetu eta erbesteratu zituztelako. Gotzon Bidaurratzagak, esate baterako, 10 urte eman zituen Mexiko D.F.n. Hango euskaldunen artean gaixo ugari artatu zituen eta liburu batzuk idazteko aukera ere izan zuen.

1951. urtea arte ez zen berriro beste elkarte barazkizalerik sortu: Bartzelonan gertatu zen berriro ere Manuel Cervera Cebolla militar frankistaren babespean. 1961. urtean Barakaldoko elkarte barazkizalea eta mediku naturistak elkarrekin aritu ziren elkarte batean. Gotzonek bere bere bizitzako azken egunetara arte mantendu zuen bere harremana elkarteko kide zaharrekin (besteak beste Eduardo Alfonso presidentearekin).

## GONTZONEN EUSKARAZALETASUNA

Euskaltzaletasuna txikitatik zetorkion eta heldutasunean bultzatua sentitu zen orduko gizarte aldaketaren aurrean abertzaletasunean parte hartzera eta euskararen inguruko liburuak eta lanak irakurri zituen; hauen artean Pablo Pedro Astarloaren «*Apologia de la lengua vascongada*» (1803) liburuaren jatorrizko bertsio bat eduki zuen, eta guda aurreko euskarari buruzko

hainbat liburu ere. Bere autobiografi argitaragabean honela idatzi zuen: «*si puedo publicar mi trabajo, verán los lectores que en pos de los conocimientos, que el Euzkera, es idioma original, propisimo en la significación de sus elementos, sílabas y voces, es cortes en sus formulas y expresiones, ordenadisimo en las reglas y que guardala mayor y más rara consecuencia en sus conclusiones, con una armonía singular, sin par, entre todas las lenguas.*»

Aurretik ez zuen jasoko Medikuntzan euskaraz idatzitako lanen berririk. Izan ere, egile gehienak Iparraldekoak izan ziren (Albert Constantin, Pierre Buruzain edota Jean Etxepare kasu), eta hegoaldekoontzat ere ezezaguna izan dira, ia gaur arte (Kepa Altonagak plazaratu arte alegia) (11-13). Ez dakigu «Herria» aldizkariaren *osagarriaz* ataletako beste egile batzuk (Souberbille edo Minville sendagileak) (14) ezagutuko zituen ere ez.

**Argija kirijotz-alija edo argijak gorputza elikatu egiten daula (4)-**ri buruzko azalpen aurkeztua

Bere biografian (1) azaltzen denez 1923. urteko apirilaren 26an Novedades antzokian**,** iridiologian hasi berrian zenean, euskarazko hitzaldi bat eman zuen, EUSKAL ESNALEA elkarteak antolatutako hitzaldi sorta baten barruan. Aste bat lehenago beste mediku euskaldun bat, Jose Zinkunegik hitzaldia eman zuen kirolaren on-gaitzez. Elkarteari buruz horrela idatzi zuen Koldo Izagirrek bere *Euskararen historia txikia Donostian 1800-1998* (15) liburuan: «*Adore berria hartuta, euskaltzale abertzaleak, karlistak eta are integristak ere bildu ziren Euskal Esnalea izeneko elkartean, Tolosan. Helburua euskal kultura azkartzea zuten. Onenak emanak zituen Euskal Erriaren hurrengoa izango zen elkarte honek 1911n sorturiko Euskalerriaren Alde aldizkaria. Bazegoen euskaraganako borondate garbiago bat, eta bazuten honetan zerikusia abertzaleek lortzen dituzten zinegotziek, Bilbon behintzat oso nabarmen.*

*Euskal Esnalea izen bereko buletina ateratzen hasi zen, euskara hutsean, eta nukleo honetatik sortuko zen Argia asterokoa Donostian (1921-1936), egundoko harrera izango zuena Gipuzkoa osoan. Euskara prestijiatzeko asmoz publiko urbanora heldu nahirik, hitzaldiak antolatzea erabaki zuen Euskal Esnaleak hainbat gairi buruz, denak euskaraz, Donostian eta antzoki batean, Salon Novedadesen hain zuzen. Zenbait jai-egunetan, goizeko hamaiketan, publizitate ugariz iragarriak, oso ekimen ederra izaten ziren hitzaldiok, eta oso jarraituak. Batzuetan irudiz apainduak ematen ziren, proiektore baten bitartez. Idazle eta intelektual askok hartu zuten parte:*

*Urreta, Larunbe, Etxegarai, Garitaonandia, Zinkunegi, A. Donostia, Azkue, Lhande, Orixe, Anabitarte, Larrañaga, Mokoroa, Barandiaran, Gerra... Gaiak ere oso ugariak izan ziren, atzean utzi zen garai bateko monotema: prehistoria, musika, telefonoa, poesia, olinpiadak, emakumea, medikuntza...»*

1927. urtean argitarutako liburuxkak 20 orrialde ditu eta bere hasieran Joseba Zabala-Arana, *Miren Biotz Semiari* dedikatua dago. Dirudienez, apaiz honek lagundu zion euskarazko bere lehen izkribuan idazten eta zuzentzen. Bernardo Estornes Lasak Auñamendi entziklopedian (16) jartzen duenez, 1936. urtean desagertu zen Bilbotik San Vicente de la Barquera (Kantabria) bidean. Nabarnizko seme honen eragina jasoko zuen nonbait Gotzon Bidaurratzagak idatzitako artikuluan, berak euskara arloan egindako lan ugariak baitziren: «Edesti deuna» (1921) (17), «Euzkerazko Zenbaketea» (1932) (18). Beraz orduko euskal letretan aditua izango zen eta seguraski Gotzonen zuzentzailea. Idazle honen memoria galdu egin zen, beste asko bezala, baina kontutan eduki behar da berak 1922. urtean euskararen batzeari buruzko txosten bat idatzi zuela «Euskera» (19) aldizkarian.

Gotzonen liburuxkak zortzi atal ditu: hiru argiari buruzkoak eta beste bost argiak gure gorputzean ikusmenaren bitartez duen eraginari buruzkoak. Hau da, iridiologiaren oinarriaren azalpena dugu hemen, seguraski Valderren liburuan («*El diagnóstico por el iris*») oinarrituta.

Euskara aldetik sabinismo edo garbizaletasun ildoari erabat jarraitzen dio eta liburuxkaren azken bi orrialdetan hiztegitxo bat dago izenburu honekin: «*Itz barrijak eta*», bertan aurkitu ditzakegu orduko neologismoak *kizkin* zelula izendatzeko, *soñizti* fisiologia izendatzeko, *kirizpi* nerbio zuntza moduan, etab.

Argia eta bizitzaren arteko elkar-beharrez hasten da idatzia eta halaber, azaltzen da argiak zer eragina duen gure gorputzean larruan dauden nerbioren bidez, honi jarraituz garunerako ibilbidea azaltzen du begietatik hasita.

*1- Argija geikiz*

Lehengaia eter (*mekija*) litzateke, hau da, gauzen oinarria, *gauzkaya* delakoarekin batera (materia prima); honek atomoek (*apurek*) osatua egongo litzateke eta atomoak elektroiekin osatzen dute (*tximistapurek*). Hasteko, teoria atomikoaren ematen ditu, garai horretako aurkikuntza izan zen teoria hori.

Argia materiaren dardarak (*meki-uñaldi*) edo energia-uhinak bezala azaltzen du eta baita oraindik ezagutu gabeko zerbait gisa ere (*Argija dere-*

*txon meki-uñaldi onek, berriz, al ezkutu ta indar ikaragarrijak dauz, ondiño asko ezagutu be ez doguz egiten, baña.*).

*2- Argija bixitza-sorburuba. Bere egikuna gorputzan.*

Argiaren garrantziarekin hasten da erlijio aipamen batekin (*Jaungoikuak arrija lelengo egunean egin eban*) eta bizitzarekin duen harremana, gehienbat eguzkiak bidalitako izpiengatik (*eguzkijak meki-uñaldirik eragingo ezpa-leu, ludijan bixi dana ayenatu egingo litzateke*). Honetan, *gure aberkidea* bezala aurkezten duen Goikoetxearen hitzaldietan entzundakoa aipatzen du. (*gerotxuago atzalduko dodazan uste asko berak Bilbo`n egindako itzaldijetan entzunikoak dira*). Geroago, azaltzen du janaritik hasita argiak zer eragina duen gorputzean eta zein garrantzitsua izan daitekeen garunean zentzumenen bidez (*asmen bakotxak bere iñarpenerako arija bihar-biarrezkua dau*). Horretarako fisiologiako azalpen bat ere ematen du aurretik.

*3- Argijaren bidia soin-ziar*

Aurrekoaren tesia defendatzeko argiak gorputzean egiten duen bidea dator atal honetan. Garuna, begietatik datorkion argiaz elikatzen da (*garaun eta bizkar-kirijoetarako atia, barriz, begijak dira, ta begi-ziar egiten da mekizko edo argizko elikapena*) Eta begiak eta garunak jatorri enbriologiko berbera dutela. Horrela, argi izpiek behin begietatik sartuta aurkitzen duten ikusmen bidea azaltzen du (*betsein-zuloa, betsarea, bekirioa, ikusmukurera, garun azala* beginihia, erretina, ikusmen nerbioa, talamo optikoa, garun azala), baita alderantziko bidea tuberkulu kuadrijeminoetara (*potor lauzki*) eta errraboil errakideoak (*ornagun tontor*).

*4- Ikuskuntza*

Ikusmenaren oinarri fisiologikoaren berri ematen du fotohartzaileetako (*kosno eta makiltxubak*) epitelioaren (*estaleuna*) eta argiaren arteko elkarrekintza aipatuz. Era berean, ederki azaltzen du nerbio kitzikapena (*kirijotza*) garun azalean nola gauzatzen den (*ementxe nabatuten dira gauzen azal-zeingijak: margo, goibera, tankera, t.a.*).

*5- Soma-iñarkunetan argijak daun eragipena.*

Hau da, argiaren eragina gorputzaren funtzioan. Zentzumen bakoitzaren bereizitasunak (*muetakitasun*) azaltzen hasten da, geroago kitzikapenak nerbio-kinada nola bihurtzen diren azaltzeko (*asmen bakotxak berari dagokijan lekore-indaretikuak edo dira-ta*). Hala ere, argiro baieztatzen du zeregin hauetan ikusmena dela nagusi, eta berriz ekiten dio zentzumen arteko elkarrekintza aztertzeari (*garunetan, batezpe, atal gustijak dagoz osoro el-*

*kartuta*) eta berradierazten du elkarreragiketa zentzumen artean, dena den ikusmenaren eragina dela baieztatzen du (*bekirijuak dakarran argizpi-indarrak ikusmukurrean zeregin aundijagua betetan dauala, nik uste; beste soma-indarren biztutzailia edo da*). Horrela, batetik argia da prozesua eragiten duena, baina bestetik, ez du ahazten itsuak diren gizakiek ere badutela sistema hau (*itsuben adore-bixitza aul eta mirixa ixan biarko litzatekeelata*) baina justifikatzeko begi-nihietatik sartzen den argiak edukiko luke eragina nahiz eta ikusmena galdua izan. (*itsubak, ezin ikusi ixanaren, soinbaru argija ugari artu legikie-ta*).

*6- Beranzko argizpijen egikuna*

Argiak bide bi egiten ditu garun-azaletik behera: bat ikusmen-nerbiotik begietara, eta bestea erraboiletik gorputz osoko organoetara (*iñarkin*). Horrela, argiak nerbio eta hormonen bidez eragingo lioke gorputz osoari, eta metabolismoari (*eraldakuntza*), zeharka bada ere. Bestetik, baieztatzen du airea eta biriken arteko harremanaren pareko adela argia eta begien artekoa, azken honek gorputz osoan eragiten duenaren garrantzia azpimarratzeko.

*7- Argija garun-alija. Sentzean ixaten daun eragikuna.*

Atal honetan, gaixotasunaren eragile gisa naturismoaren edo higienismoaren oinarriaren teoria edo gorputzaren toxizitatea (zikintasuna) adierazten du (*orregatik odol garbiz ta argi ugariz beteriko garun osasuntsubak dauzan gixonak bere goi-almenai dagokijezan iñarkixunetan errez jardungo dau*). Horrela, esaten du nerbio-sistema begetatiboan parasinpatikoa (*kibikitza*) eta sinpatikoaren (*kimulotza*) artean gertatzen den orekak zerikusi handia duela nerbioen bitartez argiak eragiten duen prozesuarekin. Teoria bitxi bat azaltzen du sexuaren jatorria azaltzeko (*kibikitza nagusi geratuten ba-da mutiko jayoko da; kimulotza nagusi geratuten ba-da, ordian, neskato jayoko da*). Garai horretan jakina, ez zuen ezagutzen sexu-kromosomei buruz orain dakiguna.

*8- Soin-narruba ta argija*

Larruazala eta argiaren arteko elkarrekintza azaltzeko atala. Argia eta larruaren koloreen arteko harremana azaltzen du (*lurralde bero-beroetan narru-margua baltza ixaten da*) eta bai nerbioen bitartez argiak larruazalean duen zuzeneko eragina ere.

Garai horietan naturistak izan ziren eguzkitako bainuak hartzen lehenak eta eguzkitan egotearen aldekoak. Oraingo hondartzak jendez josiak diren arren, XX mendearen hasieran ez zegoen eguzkitan biluzteko ohiturarik.

Testuaren orduko ortografiak eta neologismoak zaildu egiten du irakurketa, baina kontutan eduki behar da zientzia euskaraz idazteko lehenengoeta-

riko ahaleginen aurrean gaudela hegoaldean, 1923/7. urteetan, Sabino Aranaren gramatikaren itzalpean eta garaiko garbizaleentzat idatzita. 1936.eko gerrak eten egin zuen guztia, eta nahiz eta testua bitxia eta astuna izan, kontuan hartu behar da historiaren norabideek asko baldintzatu zutela eta baldintzatzen ari direla euskara bera eta bai zientzia-prosaren bilakaera ere. Etorkizunean, agian**,** norbaitek ezinbestekoa beharra sumatuko du gaur eguneko euskarazko testuak etorkizuneko euskara horren bidetik berrirakurri edo berridazteko. Hori ere nabarmenagoa izan daiteke, zientzia-testuak bezala hain berezituak diren idatzien kasuan. Hegoaldean 1920-30 urteetan euskal literaturak izan Lauxeta edo Lizardi bezalako olerkariei esker dastatu zuen loraldiaren antzera, zientzian ere garai hartan, egon zen antzeko zerbait; Espainiako gerrak eta ondorengo errejimen politikoak bortizki eta gupidarik gabe eten zuen saio hura. Bere garaiko hizkuntza-ideologia garbizaleak baldintzatuta aurkitzen dugu Gotzonen saiakera hau, baina beste alde batetik, idatziak gogoan izatea merezi duelakoan idatzi dut artikuluxka hau.



ARGIJA

KIRIJOTZ-ALIJA

EDO

ARGIJAK GORPUTZA ELIKATU EGITEN DAULA

BIDAURATZAGA'TAR GOTZON

BILBO'KO SENDATZALE-BESTUNLARIJAK

DONOSTIA'N

Saki Deunaren irarkola.—31, Garibay.

1927

56



*Zabala-Arana'taŕ Joseba,*
*Miren-Biotz-Semiari*

Nire lan baŕijau nori eskeñiko neuskijo zeuri, ene aba ta aizkide maite oŕi, baño bidezago? Orain urte bi, Bestuniztija zala-ta, Donosti'n irakuŕi neban itxeikixuna euskeraz ipiñi zeustanean, benetan aŕiu nenduzun, gure euzkera zaŕa alako gai baŕijak erabilŕeko gauza zanik eneban susmetan-da. Oŕegaitik, nire idazkun au, argijak gixa-soñean daun gaŕantzi aundi-aundija erakusteko, ludi osuan lenen ageŕtuko zan idazkuna ixango-edo zala-ta, lenengoz euzkeraz argitalduteko neban gogo bixija betetako, nogana joko neban laguntza-eske zeugana baño? Eta, benetan, nire gogua asebete dozula! Oinguan, be, euzkera ondo dakijanarentzat gairik gatxenak euzkeŕa utsez erabili eziñik ez dala erakutsi dozu, ta poliŕo erakutsi be, gero!

Eskaŕik asko! ta ez azpeŕtu geure euzkera kutunaren alde lanari ekiŕen.

GOTZON



R-1636

# Argija kirijotz-alija

**GAYA**

1. Argija geikiz.
2. Argija bixitza-sorburuba. Bere egikuna gorputzan.
3. Argijaren bidia soin-ziaŕ.
4. Ikuskuntza.
5. Soma-iñarkunetan argijak daun eragipena.
6. Beranzko argi-izpijen egikuna.
7. Argija garaun-alija. Sentzean ixaten daun eragikuna.
8. Soin-naŕuba ta argija.

1. *Argija geikiz.*

Jakiŕun ezeinbatzuk, gauza gustijak zertaz eratu edo eginda dagozan adirazoteko, azkenean lenengai bakaŕera jo biaŕa dala diñoe; beste jakiŕunak, baŕiz, lenengai bakaŕera ezin dala jo, bikotxera edo biŕara baño.

Lenengoen ustez, askotariko gauzak ikusten doguzan-aŕen, gauza oro gai batez, *gaudiko indaŕ orokaŕaz*, egin dira. Indaŕ ori onela edo bestela bildu, eratu, ereduzu, egiŕenk sortzen da gauzen baŕdin-eza. Gauza gustijak, beraz, zusteŕai berbera dabe, lenengai berbera dabe. Lenengai oŕi, nai *indaŕa* nai *mekija* (eter) deretxoe.

Beste jakiŕen askoren ustez, gauzen ixakerea adirazoteko, lenengai bi ontzat aŕtu biaŕa da: *mekija* ta *gauzkaya* (1). Lenengai bijok batera edo bestera batu ta alkaŕtzetik sortzen dira gaudiko ixaki-mueta gustijak. Gauzkayaren atalik txikijenak, *apuŕak* dira mekijaren atal edo izpikrik ziatzenak, *tximistapuŕak*. Tximistapuŕak apuŕakaz alkaŕtuten dira, beti baŕdin ez baña: gauza bakotxari dagokijan lez baño. Apuŕak eurenez kide-kidiak diranezkero, gauzearen berezitasuna tximistapuŕetatik datoŕ: gauzeari apuŕetik etxatoŕko, ez berorik ez otzik, ez argirik

(1) Jakiŕun onein aŕtian, gaudijatzazko bere uste berezi ta aŕgaŕijak dirala-ta, uŕgaŕijena Goikoetxea geure aberkidia yaku. Gerotxuhago atzalduko dodazan uste asko berak Bilbo'n egindako itzaldijetan entzunikuak dira.

5

ez ilunik, tximistapuŕetik baño. Oŕezkero, gauzeari muetakiña-suna, onakua edo alakua ixatia, tximistapuŕak emoten dautsae.

Nai lelenguai nai bigaŕen jakiŕunai jaŕain, argija zer dan adirazoteko gitxi gora-bera bide berbera aŕtu biaŕ dogu. Gaudiko indaŕ orokaŕa, mekija, edo berez edo apuŕ-bidez, askotara eratuten dana orok ontzat aŕtuten dabe; era oŕeitariko gorengua da, ba, argija. Uretara aŕi-koskoŕa jauŕtiten ba-da, uin-aldija soŕtzen da: jauŕtiŕako aŕija txatxaŕagua, ta uñaldijaren ozka edo uin bakotxa txatxaŕagua, ziagua. Mekija igikoŕ-igikoŕa da-ta, beti dardarka, beti uñaldijak eragiten diñardu; eta meki-uñaldijok be kidiak ez dira, batzuk bestiak baño ozka edo uin ziagua dabe. Meki-dardara bixijagua, ta berari dagokijan uñal-dijaren ozka edo uña, be, zingua. Tximistindaŕa, berua ta ar-gija mekijaren dardara baŕdiñezak, ozka kidia ez daben meki-uñaldijak, dira; eta euretaiko dardararik bixijenari dagokijana, ozkarik ze edo txatxaŕena dauna, argija da. Argija deretxon meki-uñaldi onek, baŕiz, al ezkutu ta indaŕ ikaragaŕijak dauz, ondiño asko ezagutu be ez doguz egiten, baña.

2. *Argija bixitza-soŕburuba. Bere egikuna gorputzan.*

Argija gaudi-indaŕaren gorengo era edo mala dala aitatu dot; eta uste au Mois deunak goyargiz idatzi ebanak, be, indaŕ-tzen edo dau. Jaungoikuak argija lelengo egunean egin eban, gorengo indaŕa, gaudiko beste indaŕ eta bixi ororen zusteŕai ta soŕburuba zalako, ausaz. Laugaŕen egunean, baŕiz, argi oro-kaŕ ori ixaŕetan banakatuta lez geratu zan. Aŕezkero, gure ludi ontako bixija ixaŕ oŕeitako baten menpian, eguzki-eragikunaren menpian, dago.

Nai argija ta berua eguzkitik bertatik zuzen datozala, nai —Goikoetxea'k diñonez—eguzki-biraketeak eragindako meki-uñak gauzetan soŕtzen dabezala, eguzkija ludi ontan jayo, azi ta ugaltzen danaren aitatzat aŕtu biaŕa dogu; bixidun ixakijak, bakotxak bere zozko-arauz ta neuŕiz, eurekandu ta erabilten da-bezan meki-uin edo ozken soŕburuba eguzkija dala autoŕtu biaŕa dogu. Eguzkija, ba, ixadi-bekalduna letxe da; berak utz-egiñez-kero, gixon, abere ta bedaŕki, oro ilundu, marguldu ta zimeldu egiten dira; eguzkijak meki-uñaldirik eragingo ez-pa-leu, ludi-jan bixi dana ayenatu egingo litzake.

Bedaŕkija erne ta azteko, eguzki-argijak eragikun aundija ixaten dau, bai berez baña beste gayen bidez be. Ara: bedaŕki-jak axe garbija, eguko laspel-gayak eta luŕeko mia-gayak biaŕ-biaŕak dauz. Axia, baña, argijaz nastauta egon biaŕ; eta laspel-gaya ta mia-gaya, be, bedaŕkijak beretu-orduko, artarako indaŕ

4

berezija daben argi-izpijak gertu ta biztuta lez egon biař dira. Aberien eta gixonen gorputzetan, be, orixe ez ete da jazoten? Bai, beintzat: argija ta argijaz nastauriko axe garbija nai ta nai-ezkuak dauz gure gorputzak; mia-gayak eta laspel-gayak, bařiz, lenago bedařki-eunetan, argija lagun dabela, ixakera bařija ařtu-barik eztira gauza geure gorputz-atal biuřuteko. Ganera, argijaren eragikuna gorputzaren atal bixijetan, be, irauten da, atalok eten-barik bařiztu ta eraldatuten eta gogokijai eusten.

Argijak saspi margo nausijetaz ganera, beste amaika ta amaika margo-mala edo mueta be ba-dauz-ta, euron bidez gixa-soñari lekorez ta bařuz ainbat margo-liis emoten dautsoz. Ortarako, baña, argija soin-eun eta kizkiñetara eldu ta oneik, bakotxak bere arauz, ařtu ta bakandu egin biař dabe. Gorputzak argijarekiko daun bakidetasuna, beretuta daukazan mia-gatzetatik edo ařtzen dau; ořegaitik, argi-ozka ta mia-gayen alkařekiko eragikuna arauzko ta onuratsubena izan dedintzat, mia-gayok biař dan giñuan beretuta euki biař dauz. Argijak gorputzari askotariko osterupenak eragiten dautsoz; argija ta berekiko soin-bakidetasuna bixigajuak, eta osterupenak be bixijaguak, zolijaguak. Gorputzak argi-ozken zirikakunai ez dautse, ba, beti bařdin erantzuten, ořtan soin-atalen zozkun ta egoera on edo txařo, ta abař, bilařteko izaten dira-ta.

Ganera, lekoria ta soin-bařuba alkařtzeko bidiak asmenak eta soin-nařuba diranezkero, ixadiko indařak, be, argi, bero, tximistindař, t. a., gorputzari eragiteko beste biderik eztabe asmenak eta nařuba baiño. Nařubak eta asmenak, bařiz, etořburu beraxe dabe: kirijotza, nařu-mintza, estaleunak, zintz-eunak, betilařa-ta umeki-kornatzetik dotoz. Ořegaitik, asmenak, bakotxak bere egikixun-arauzko zozkun ta lekoreko indař berezijari dagokijon ixakerea dauzan-ařen, orok etořburu berbera dabelako, alkařtasun aundija dabe.

Eta, asmen bakotxak bere iñarpenerako argija biař-biařezkua dau; baña, garaun-bidez adimenari beronen gogo-iñarkun zuřgařijetan laguntduteko be.

*3. Argijaren bidia soin-ziař.*

Azkenengo alatu dana obeto atzalduteko, argijak soin-ziař egiten daun bidia erakutsi biařko dogu.

Urdail-estietarako atia ahua da, ta abo-ziař egiten da jakizko elikapena; odol-bidietarako atia saduřa da, ta beronen bidez egiten da axezko elikapena; garaun eta bizkař-kirijoetarako atia, bařiz, begijak dira, ta begi-ziař egiten da mekizko edo argizko elikapena. Ganera, bekirijua garaun-mamiñetiko eřua da;

5

eta argizpijak aŕtzen dauzan betsaria, baŕiz, bekirijo edatu edo luzatuba baño ezta. Betsaria ta bekirijua, beraz, garaun-zatijak baño eztira.

Ona, ba, argijak egiñen daun bidia: betsein-zuloz igarotako argizpijak, betsarera eltzen diraneko, eraldatu egiñen dira, era baŕija aŕtzen dabe, ostantzean auŕera bide egiñeko elitzakez gauza ixango-ta. Argizpijen era baŕi ori tximistindaŕ-antzekua da, ta *argizpi-indaŕa* eretxiko dautsagu. Argizpi-indaŕa betsaretik bekirijo-ziaŕ ikusmukuŕera eltzen da, ta emendik garaun-azalera, garaun-azalean dagoz-ta ikuskiñaren eta beste asmenen erdokijak. Eta gorputzeko beste adore-kirijo gustijak, be, ikusmukuŕera joten dabenezkero, emendik garaun-azaleraño bidia soñeko beste asmen orotatiko soma-indaŕakin batera egin biaŕ ixaten dau argizpi-indaŕak.

Garaun-azaletik beranzko kirizpijak argizpi-indaŕa beŕiro ikusmukuŕ ta bekirijo-ziaŕ betsareraño erakaŕten dabe, ta ordúban osotuten da ikuskuna. Oŕetaz ganera, garaunetako goi-aldetaraño elduta gero atzera datoŕen argizpi-indaŕ ori eragikoŕa data, eragikoŕa danez beste bidera be joten dau: ikusmutuŕetik poloŕ lauzki ta ornagun-tontoŕerako bidia aŕtuta soin-atal gustijetako kirizpi igikoŕai eragiñen dautse.

Atzaldu daigun, orain, esandako eraz soin-baŕuratu dan argijak betetan daun iñarkixun osua.

4. *Ikuskuntza.*

Argijaren kilika edo zaŕasta betsareko kosno ta makiltxubak aŕtuten dabe. Kosno ta makiltxubok, biaŕ dabezan gayak margodun estaleunetik ataraten dabez, ta estaleuna bera mintzalak elikatuten dau. Estaleuna, eten-barik berez baŕizuten dan argazki-mintza lakoxia dala esan leike.

Lekoreko indaŕak, baña, gorputz-ziaŕ igaro al ixateko, tximixtindaŕ-antzeko biuŕtuten dira; eta indaŕ oŕei dagokijen bidesaria kirijotza da. Biuŕpen ori betsareko ikus-kizkiñetan letxe jazoten da beste asmenetan be: belaŕi-baŕuban Corti-odi edo entzun-odijetako kizkiñetan, usma-kizkiñetan, txasta-kizkiñetan, eta soin-naŕukoetan. Bekirijuak, ba, lekoretiko argizpijak betsarian eragindako indaŕ berezija, argizpi-indaŕa, eruaten dabe; baña, indaŕ ori andijagua ala txikijagua, bixijagua ala motelagua ixatia argizpi-soŕburubaren ixakereak eta begi-atalen egoera on edo txaŕak-eta egiñen dabe. Esandako indaŕa ikuskin-erdokira eldu-orduko, itxoroski, beziŕinda, poloŕ lauzki ta ziriziaŕ igaro biaŕ ixaten da; eta marguai dagokijezan indaŕ-ozkak utsune ixaŕdiñetara ta Martinotti-utsunetara joten dabe. Ikus-

6

pena bera garaun-azaleko mamin somakoŕean betetan da; mamin au me-biuŕkoŕ-gaŕdena da; emenixe nabaluten dira gauzen azal-ezingijak: margo, goibera, tankera, t. a. Baña, argizpi-indaŕak mamin somakoŕeko kirijo-kizkin-ziaŕ igaroki ikuspena eragil̃en daunaŕen, ikuspena osorik ezta emen egiztuten, baŕunbian, eta argizpi-indaŕa atzera garaun-azaletik betsarera etoŕil̃a gero, baño.

Ontara, gure begijak lekoreko gauzakaz alkaŕtu egil̃en gabez; ontara, guŕe begijak kil̃ikatu dauzana ikusi, ta ikusi edo begiratu doguna geuretu egil̃en dogu; edo, bestela esateko, argi-argiĩan bixi ixaten gara.

5. *Soma-iĩarkunetan argijak daun eragipena.*

Lenago oiatu da soin-naŕu ta asmenak etoŕburu beraxe dabena; eta naŕu-asmenoi lekore-indaŕ oroen zirikadak aŕtzia dagokijoenezkero, naŕgaŕi da indaŕok, be, etoŕburu bakaŕa ixatia, oro argi-indaŕetikuak edo dira-ta. Asmen bakotxak berari dagokijan lekore-indaŕaren zaŕasta edo zirikadea aŕtzen dauneko, berebixiko indaŕ baŕija, tximistindaŕaren antzekua, soŕtuten da; eta tximistindaŕ au asmen artako kirijuaren bidez garaun-azaleko bere lekunera, asmen ari dagokijan lekunera, eltzen da. Asmenetatiko kirijo oneik garaun-azaleko lekunetan edatu edo zabalduta dagoz, ta atalderanzko eŕo askodun ustaya dagije; eŕuen erpin edo pikoŕ somaberetan ageŕtzen da asmen bakotxaren muetakiĩasuna.

Asmen bakotxak bere lekunia ixanaŕen, lekuniok banandutа eztagoz, eurok esiĩuten dauzan oroimen-lekunian alkaŕtu ta bat-eginda baño. Guztiz bananduta dagon gorputz-atalik ez da; eta garaunetan, batezpe, atal gustijak dagoz osoro alkaŕtuta. Mueta askotariko atalak ixatiak eztau iĩarkun-alkaŕtasuna eragozten; soin-atal bakotxaren eragikuna beste atal gustijetara, be, eltzen da, orok alkaŕ eragil̃en dautsae.

Lenago esan danez, be, asmen orotatiko kirijuak, lekoreko ta soin-baŕuko zaŕastak dakaŕezan soma-kirijuak, eŕodun ustaya egin-orduko, ikusmukuŕera joten dabe. Gertagi onetzaz Sofiztijak ez dausku alako baŕi andirik emoten; ikusmukuŕeko kimulo lodijak, soma-zaŕastetatiko indaŕ oro alkaŕtzeko ta garaun-azalera eltzeko bidia dirala besterik ez diñosku. Baña, asmenetatiko soma-kirijuak ikusmukuŕera jotia ta bekirijaa bestiak baño lodi-lodijagua ixatia zijo aundijaguaren ageŕpidiak edo dira. Bekirijuak dakazan argizpi-indaŕak ikusmukuŕean zeregin aundijagua betetan daula, nik uste; beste soma-indaŕen biztutzal̃a edo da; lekoreko ta soin-baŕuko zaŕastak batuten da-

7

bezaŕ soma-kirijuak dakaŕezan indaŕak ikusmukuŕean eraldatu ta gorendu egiñen edo dauz argizpi-indaŕak, garaun-azalera eldu daikezanean bakotxak berari dagokijan somapena—entzupena, txastapena, ikupena, t. a.—eragin al dagikentzat. Beraz, ikusmukuŕak adore-bixitzan, bare-gibelak azkoŕtze-bixitzan betetan dabenaren antzeko egikixuna betetan dau.

Au irakuŕijaz, itsubakaz jazoten dana oŕuko edo yaka irakuŕliari: begi-ziaŕ saŕtzen yakun argijak gure adore-bixitzan oŕen zeregin aundija ba-leu, itsuben adore-bixitza aul eta miŕixa ixan biaŕko litzakela-ta; askotan, baŕiz, ostera jazoten da, itsuben beste asmenak, entzumena ta ikumena batezpe, zoŕijaguak ixatia. Baña, itsubai jazoten yaken onek esan danaren auŕka ez dau indaŕ-izpirik be; itsubak, ezin ikusi ixanaŕen, soin-baŕu argija ugari aŕtu legikie-ta. Itsubaren begijetaz edo betzulubetaz argija euŕez igaroten da, ta argi ori bekirijuak baŕdin-baŕdin eruaten dau, begijak ikusiko ba-lebe letxe. Ikuspenik ez da jazoten; argizpi-indaŕak, dana dala-ta, ikuspenik ezin dau eragin; indaŕ oŕek, baŕiz, gorputzean dauzan beste zeregiñak bete legikez, ta bete, be, betetan dauz; suduŕik edo usmamenik ez daunak axia birijetaratu ta aŕnas-egiñen daun letxerik.

Eta asmenak eta kirijotzak etoŕburu beraxe dabenezkero, bidezkua da asmenak alkaŕ-ordeztu al ixatia. Oŕegaitik, geyenetan itsuben ikumena ta entzumena zoŕijaguak ixaten dira, ta batzutan aŕigaŕijak ixan be; argizpi-indaŕak, ikuspenik eragin ezin daula, ikumenari ta entzumenari dagokijezen indaŕak gorenduteko al aundijagua ixaten edo dau.

Argija, edozelan be, elduko da itsuben soin-baŕura, itxasoko sakonetarano, be, eltzen da-ta; sakon aundi oŕeitan bixi diran aŕain eta bedaŕkijak, beintzat, argija aŕtuten dabenaren aztaŕen agirijak ixaten dabez.

6. *Beranzko argizpijen egikuna.*

Ba-dakigu garaun-azaletik beranz atzera datoŕen argizpijak bide bi aŕtuten dauzana: begijetarakua bata, ikuspena osotuteko; ornagun-tontoŕerakua bestia, kirizpi igikoŕai eragiteko. Ikusmukuŕetik ornagun-tontoŕerako bidian, ba, argizpijak kirijo igikoŕak dauz lagun; kirijo oneik, baŕiz, garaun-azalean aŕtu dabezan agintza-zaŕasta edo kilikadak soin-ataletara eruaten dabez; au da, norbera azi ta gixadijari iraunazoteko iñarkintzara ta asmenetara.

Goranzko argizpi-indaŕak ikusmukuŕetik garaun-azalerako bidian soma-kirijo-ziaŕ dauzan beste indaŕ oro gorendu egiñen dauzan lez, beranzko argizpijak, be, ikusmukuŕetik ornagun-

8

tontoŕerako bidian lagun dauzan kirijo igikoŕai eragiĺen dautse, ta bakotxari bere bakindaŕ-arauz ta daruazan kilikadai ta bete biaŕ daun egikixunari dagokijenez eragin be. Eragikuntza oŕtatik, edo argizpi-indaŕetik, aŕtzen dabe kirijo igikoŕak euren zeregiñak betetako nai-ta-ezkua yaken indaŕa (2).

Argizpi-indaŕa kimuloetan eta gorputz osoko niñikapotzetan irutzi edo batu egiĺen da. Soin-eun eta ataletan zabalduta dagozan niñikapotz edo kizkin eŕodun oyek argiĺbera-argiberak dira, ixan be; eta euron zeregiña, argija edo argiĺiko indaŕak, berua ta abaŕ, soin-atalai egokiĺu ta emotia dala esan lei. Oŕelan, gorputzeko iñarkin, baŕu-sortiñospenerako guruin eta soin-kizkiñeĺaraño elduten edo dira argiĺiko indaŕ eta eragikuntzak; gusijetara baŕdin eta berberak ez baña, argi-ozka-mueteari, soin-atalaren egiĺamu ta gayai, t. a., dagokijenez baño. Argizpija gorputz osoz zabalduten da, ba; eta argi-ozka bata edo bestia danez, edo tximistindaŕa edo berua edo igi-indaŕa edo kimi-indaŕa, t. a., soŕtuten dauz.

Argija osogetu edo bere gaikijak—argi-ozkak—bereziĺu egiĺia gorputzaren zeregiña da; eta niñikapotzak, euron egiĺamu ta egoera-arauz, argi-ozka batzuk edo bestetzuk aŕtu ta eurenduten dabezalarik, argija eraldatu egiĺen da ta soin-ataletan askotariko aldakuntzak eta bakuntzak erakaŕten dauz.

Soin-atal bakotxa berari dagokijazan argi-ozkak aŕtzeko atonduta dago. Adibidez: lenago bedaŕki-eunetan eratu diran gayak odol-bidietara eruateko, geŕetan dabezan urdail-estiak

---

(2) Garaunetako atalenbateri kalte-egiñezkero bere albokuak kalte-barik geratutia eŕez ixaten eztalako edo, Soñiztijak ikusmukuŕetzaz baŕi andirik ez damosku. Ori ta be, baña, Hughlins sendatzaĺiak 1874'g. urtian egindako gexo-azteŕketa ezeinbatek naiko argi dagisku. Gexuari bixi zala auxe jazoten ei yakon: eskeŕaldeko soin-ataletan, iztaŕean batezpe, igikunetarako indaŕ gitxi; eskeŕalde gustijan korde edo adore gitxi; suduŕ-eskeŕaldian usna uŕija; miñaren eskeŕeko erdijan, be, txastamen gitxijago; begi bijetan eskeŕaldeko beterdi-itsutasuna, edo, betsare bijetako eskumalde-erdijak itsututa eukazala; eta eskeŕaldeko belaŕija, be, goŕagua ete eban. Ilda gero, baŕiz, ona gorpu-azteŕkeak ageŕtu ebana: eskumaldeko ikusmukuŕaren atzerdijan zulagune andija; beratuta eguala ta uŕdin-orizka-margua ebala agiri zan ebagijaz: berakunia ikusmukuŕetik lekorera, garaun albataleko zuringora-ta, ez eguan zabalduta; eta ikusmukuŕaren auŕerdija ta ziritz-koskoŕaren atzerdija osorik egozan. Garaunetako beste ataletan etzan kalterik agiri.

9

oŕei-ozkak aŕtuten dabez; urdail-estiak geŕutako gayak goren-
du egiten dabezan bare-gibelak, baŕiz, amusko, oztin, oŕei ta
goŕi-laran-margozkak; odol-bidietan goŕijak dira nausi; geŕun-
tzeko kirijotzan, sen-iñarkuntzarakuan, ostera, goŕi-laran-mar-
gozkak.

Azteŕkoletan, be, bilarijak soin-eun eta ubilen kizkiñak mar-
go bata edo bestia ixatiari gaŕantzirik andijena emoten dautsoe,
ta oŕtik igaŕten dabez gorputzaren osasuna ta ondeza. Benetan,
soin-eun eta kizkiñetan amaika margoera baŕdiñez erakutsi da-
roez, ta kizkin-mueta bakotxak margo bedegaŕakaz daun bakide-
tasuna autoŕtuten dabe. Askotan, baña, bilarijok osasuntsuba
deretxaen gorputzak guzuŕ-osasuna baño eztau ixaten; eta bere
soñataletako marguak, be, ezin arauzkuak ixan (3).

Esandakuaz agiri danez, argija soñeunen erakunderako azi-
gayetakua da, soin-kizkin eta atalen eraldakuntzarako lagundu-
ten dau-ta. Oindiño urte gitxi dirala, aŕnas-egilla birijetako las-
pel-aldaketea baño etzala uste zan; gaur, ordez, aŕnasketa-on-
doriak soin osora ta kizkin bakotxeraño elduten dirala ondo da-
kigu. Baŕdin, begi-ziaŕ saŕtuten yakuzan argizpijen eragikun-
tzeak, be, soin-baŕuko bixitzarako gaŕantzirik aundijena dau.
Beraz, meki-elikapenaren ondoriak, axe ta jaki-elikapenenakaz
batera, kizkiñen bixi-baŕu-baŕuraño elduten dira.

7. *Argija garaun-alija. Sentzean ixaten dana eragikuna.*

Urtzi Jaunak lelengo egunean argija soŕtu ebanezkero, gau-
dija argiz bete-beterik dago; eta betsein-zuloxubak, diran txi-
kixxubak ixanaŕen, neuŕi-bako gaudi-unia aŕtuten dabelako, be-
kirijo-ziaŕ garaunetara ibaika saŕtuten da argija. Agijolde oŕek,
goguari bere iñarkun nagusijetan laguntuten dautsaen garau-
netan ez ete dau eragikunik ixango? Bai, eiki; eta ikusmukuŕ
ta bare-gibeletan dauna baño aundijagua, ixan be.

Oŕegaitik, uleŕmena *argija* dala, iragaŕliak *argiztubak* zirala,
jakintsuben oldozkun-*argija*, ta beste olako esakunak aiatuten
diranean, bai irudi-arauz baña soñizti-arauz, be, egi-egija esa-
ten da.

Goguaren iñarpen nausijetarako, baña, argijak garaunetan
daun eragikuntzaz ganera ikusmukuŕekua ta bare-gibeletakuak,
be, biaŕ-biaŕak dira, ta irutzuk artarakoxe alkaŕegaz ta beste
soin-iñarkunakaz idekotuta dagoz. Soma-zaŕastak, ikusmuku-

(3) Bedaŕkijak, be, euren soŕmamiñetako baŕdiñezak dirala
bide, argi ta margoekiko bakidetasun baŕdiñak eztabez, askota-
rikuak baño.

10

ŕean argizpi-indaŕaz gorendu diranezkero, garaunetara eldu ta gogo-uaŕkun biuŕtuten dira, ta orduban goguak bere almen nausijak, oroimena, uleŕmena ta naimena, erabili dagikez. Garaunak, baŕiz, azi-gaya odoletik aŕtuten dabe-ta, euren zeregiña ondo betetako, odol garbi ta egokija eldu biaŕ yake, ta euŕez eldu be. Odol egokija eralduteko, baro-gibelak argijaren laguntzaz gorenduriko azigayak egokijak ixan biaŕ, baña baŕu-soŕtiñoskijak be. Odola, ganera, bijotzeratu-orduko birijetan egurastu ta garbituten dalako, birijetara saŕtuten dan axia garbija ezpada, odola ezta ondo egurastuko, ta axiak, eguko argitik edo aŕtuta, dakaŕtzan indaŕak, be, etxakoz odolari ondo iragaziko.

Oŕegatik odol garbiz ta argi ugariz beteriko garaun osasuntsubak dauzan gixonak bere goi-almenai dagokijezan iñarkixunetan eŕez jardungo dau egokiro ta gixa-nausitasun-arauz; bere odola ta soin-eunak zikin eta garaunak zaboŕez beterik ba-dauz, ordez, gixa-arauz jarduten gaitz ixango yako, ta batzuetan ezin ixango dau.

Garaunak sentzeoz daben alkaŕtasun andija, be, ezin da ukatu. Garaunetako zaboŕak jarei-bidetzat sentza-iñarkintzea aŕtuten dabela esan lei; eta gixadija garaun ilun eta zaboŕdunez bete-beterik dagolako, sentza-iñarkunetan ainbeste naste ta okeŕ kaltegaŕi ikusten dira. Garaunetako zaboŕa jatedate geyegijakazta bapetean geiu-ondoren sen-egiten danean, baŕiz, sengijak zelako zori gaiztoko jarauntzija aŕtuten daun geyegi dakigu.

Araugeiasun ikaragaŕija, benetan, sentza-iñarkintzea berez zaboŕ-jareibidia ez da-ta, gorputzak soŕtuten daun emoirik bikañenaren jabotegija baño.

Onetzaz be, betestun-azteŕketak argi andija emoten dausku: buruko miña, zorabijua, goŕtasuna, oroi-eziña, naimen-aultasuna, edo beste olako gaixenbat dabenak, baña oldozkun ilunak, aŕtegaitasuna, laŕi-aldijak, goŕotua, ames lixunak, et. a., ixan daruezanak, be, euren betestunetako lauso, margul, eta ikuŕen bidez argi ta garbi adirazoten datsae, ba, bestunlarijari garaunetan zaboŕik asko edo gitxi ba-dabena.

Zaboŕok ali txaŕ ta laŕegijetatik soŕtuten dira; olako ali-gayak soin-ataletara eldu ta iragazkijen bidez lekorera egozteko eraz ezin eraldatu ixanik, soin-eun eta kizkiñetan geratuten dira, ta gauraunetara joten dabenezkero, kirijotz eta gogokijen aŕteko naste ta bakidetasun-ezak soŕtuten dabez.

Garaunak zaboŕez beterik egotiak, len aïatu danez, sentzarako ondore txaŕak ekaŕten ba-dauz, ostera jazo biaŕ garaunak garbi egonik argija euŕez aŕtuten dabenian, argijak jaki ta axe-alijak lez zaboŕ ta ondakiñik eztau izten-eta.

11

Orduban garaunak eztira uste ilun eta asmo baltz edo lixunak erneteko solo ona ixango-ta, argijak argija sofituko dau; eta sentzarako gaya egokiro eraldu ixanik, sengi bañijaren soña be osasuntsuba ta iñarkun orotarako egokija etofiko da.

Eta emen, laburto baño ezpa-da be, *gixa-auzija* deretxoena ataru biař dot, azkenengo urtiotan jakiñunak auzi ořetzaz *zeř* esana ugari ixan dabe-tà.

Iwan-Klo'k bere idaztijan diñonez, gixona gerungo ta ařkijago ta emakumia gerungo ta emekijago ixango bide dira (olako antz andirik ezta agiri, baña); eta lelengua gustiz ařkiñu ta bigařena gustiz emekitu daikezanian, gixa-auzi ori berez amaituko ei da.

Auzi onetzaz, baña, jakiñun askok uts aundija egiten dabe: jatořizko obena ta bere ondoriak ez gogoratutia, gixařteko okeřen zusteřaya oben ori da-ta. Ořegaitik, gixa-okeřai dagokijen zuzenbidia Soñiztijak bakařik ezingo dau emon. Gaiera, gixona ezta iñoz ařki utza ixango, ez ta emakumia emeki utza be, gixa-soña gixon eta emakumiaren etořkin batuba dalako (4).

Eta gixona gustiz ařki ta emakumia gustiz emeki biurtu alko ba-litzakez, obotu-barik akaztunago biurtuko lijzakez. Baña, olakorik jazoko dala uste ixatia ta bařasaketasuna gizakumietan jazo leiekela uste ixatia txoraken bafdintsubak dira.

Ixadijan osotasuna sořtuteko etořburu bikotxa biař ixan oi da, azpegi edo era biko indařa, era bijak banandua-barik alkařtuta daguzala. Gixadi-osotasuna, be, gixa-era bik dagije, gixon eta emakumiak: gixařa gixaki egikarija da, azpegi luzanga ta kareltsuduna; gixemia, bařiz, gixaki ařkarija da, azpegi leun eta boilduna. Gixonari, baña, emekiñasuna osagalu yako-ta, osotasun betia ixateko, ařkiñasun senduaz ganera emekiñasunari dagokijazan zeingijetatik, be, zerbait euki biař dau; emakumiari, ostera, ařkiñasuna osagalu yako-ta, oneri dagokijozan zeingi-izpirik be ezpa-dau, ezin osotasuna lortu.

Soin-bařu kirijotzan bertan, be, kibikitzak eta kirijotzak dagijen bikoiztasun erakidetuba dogu; kibikitza, eikarija ta luzanga; kimulotza, bařiz, ařkarija ta mulo boilduna. Eta gixakumia sořtuten danian, kibikitza nausi geratuten ba-da, mutiko jayoko da; kimulotza nausi geratuten ba-da, ordian, neskato

(4) Norbaitzubek, gixakumiak lenago bařasaketak zirala ta gixaki bijak gerungo ta geyago banandubaz duazala esan dabe. Bai zera! Banandu-barik bijak gerungo ta nastubagotuz duazala esan lei-ta!

12

jayoko da. Kibikitza kimuĺotzaren aldian indaŕtsubago, ta gixoko. Ikusmakuŕetik ornagun-tontoŕerako bidian, ba, argizpijak na aŕkijago; kimuĺotan kibikitzaren aldian indaŕtsubago, ta emakumia emekijago.

Dana dala, gixa-auzija gixadija bera aña iraungo da. Auzijau gustiz amaŕu ezinda be, baña, zuzendu egin leike; eta oŕtarako bide bakaŕa, gixon eta emakumiarentzako goraun garbi-garbijak loŕtutin da; edo, uekiz, axez ta jakiz, biaŕ dan erako elikakuntza ixaña.

8. *Soin-naŕuba ta argija.*

Soin-naŕubak gorputz gustija babeseko iñarkixuna dau; eta osorik argi-argiĺan, jantzi-barik, bixiteko egin zan egin, argija naŕu osoz iragazi daĺeke-ta.

Naŕu-azpira kirizpi me-miak joten dabe; bere azalaldian, baŕiz, naŕu-margokija ugari dago. Beraz, naŕubaren margokija ta argi-iragazkuna alkaŕtuta dagoz, ta margoki oŕek neuŕtuten dau naŕu-ziaŕ igaro biaŕ dan argija.

Bai, ba; margoki ugarijak argi geyago beretu ta gitxijago kirizpijetara iragazten itxi, soŕeko baltzak zurijak baño argi geyago beretu ta gitxijago iragazten izten daun letxe. Oŕegaitik, luŕalde bero-berotan naŕu-margua baltza ixaten da, ta luŕalde oyetako argi geyegijari soin-baŕuratuten eragozten dautsa; luŕalde otzagoetan, baŕiz, argija uŕijagua danezkero, naŕu-margo zurizkeak soin-baŕuratuten eŕez izten dautsa. Ori dala-ta, kalte-barik ezin da beingoz luŕalde bero-berotara aldatu oŕtarako margoki egokija eztaun soña.

Naŕubak, ba, gaŕantzi aundiko zeregiñak betetan dauz: soin-baŕuratu biaŕ dan argija neuŕtu, gorputzaren girua baŕdintsu iraraun, eta ainbeste muetako luŕunai aterabidia emonik soin-baŕuko ondakiñak egozten iragazkijai lagundu.

Argijak, beraz, naŕu-ziaŕ kirizpijai eragiten dautse ta askotariko indaŕak soŕtuten dauz gorputzean; eta argi-ta-garbi nabaŕi da argi-axien laguntza-barik soin gustiko kirijotz-iñarkuntzaren osua ta biaŕ lakua ixaten eztana.

Ezta, baña, aztu biaŕ naŕu-ziaŕ soin-baŕuratuten dan argijaren eragikuna egikoŕ-egikoŕa ixateko, gorputzaren iñarkin, atal eta kizkiñak egoera ta egiĺamu onekuak biaŕ dirala ixan. Arauzko egiĺamu garbijak soñatalai argijarekiko bakindaŕ aundija emoten dautse. Soñataletan garbiĺasun geyago, ta bakindaŕ aundijagua, erunte obia, beretute osuagua, bixitza geyago. Garbiĺasun gitxijago, ta eragozpide ugarijago, beretze-indaŕ uŕijago; bixitza itzali egingo da.

18

# Itz bańijak eta

*Betestun* (begi-erestun): iris *
*Bestunlari*: iridólogo *
*Bestunizti*: iridología *
*Oeikiz*: físicamente *
*Soma-iñarkun*: función sensitiva *
*Lenengai*: primer elemento *
*Meki* (me-ki): éter *
*Oauzkai*: materia prima *
*Apuŕ*: átomo *
*Tximistapuŕ*: electrón *
*Laspel-gai*: elemento gaseoso
*Mia gai*: elemento mineral
*Bedaŕki-eun*: tejido vegetal
*Sois-eun*: tejido orgánico
*Kizkin*: célula
*Mia gatz*: sal mineral
*Aŕgi ozka*: onda luminosa
*Osterapen*: reacción
*Asmen*: sentido
*Kirijotz*: sistema nervioso
*Naŕu-mintz*: epidermis
*Estaleun*: epitelio
*Zintz-eun*: mucosa
*Betilaŕ*: cristalino
*Umeki-kormutz*: ectodermo del feto
*Bizkaŕ-kirijo*: nervio raquídeo
*Bekirijo*: nervio óptico
*Betsare*: retina
*Ikusmukuŕ*: tálamo óptico
*Oaraun-azal*: corteza cerebral
*Ikuskin*: órgano visual
*Erdoki*: centro
*Adore kirijo*: nervio sensitivo
*Soma-indaŕ*: corriente sensorial
*Kirizpi*: fibra nerviosa
*Argizpi*: rayo de luz
*Eragikoŕ*: motor

*Poĺoŕ lauzki*: tubérculo cuadrigémino
*Ornagun-iostoŕ*: bulbo raquídeo
*Igikoŕ*: motor, móvil
*Markizun*: función
*Konno*: cono
*Estaleun*: epitelio
*Mintzala* (mintz-zail): coroides *
*Argazki-mintz*: placa fotográfica *
*Ikus kizkin*: célula visual
*Ikuskin-erdoki*: centro visual
*Itxoroski*: quiasma
*Beziŕinda*: cinta óptica *
*Ziri*: cuneus *
*Uisune izaŕdia*: célula estrellada *
*Somakoŕ*: sensible, sintiente
*Ooibera*: relieve
*Lekune*: área
*Muetakiĺasun*: especificidad *
*Markun-alkaŕtasun*: unidad funcional
*Soma-kirijo*: nervio sensorial
*Eŕodun-uztai*: corona radiante *
*Soŕizti*: fisiología
*Kimalo*: (kirijo-mulo): ganglio
*Somapen*: sensación
*Adore-bizitza*: vida sensitiva
*Azkortze-bizitza*: vida vegetativa
*Agintza-zaŕasta*: sensación imperativa
*Markintza*: aparato, sistema
*Bakindaŕ*: afinidad
*Kiĺikada*: impresión
*Eragikuntza*: influencia
*Beterdi-itsutasuna*: hemiopía *
*Berakune*: reblandecimiento
*Ziritz-koskoŕ*: cuerpo estriado

*Nikikapotz* (nikika-apotz): espongioblasto *
*Iharkin*: órgano
*Baru - sorlikospenerako guruin*: glándula endócrina *
*Kimi-indar*: energía química
*Osogetu*: descomponer
*Bakuntza*: combinación
*Amusko*: violado
*Margozka*: vibración colórica *
*Sen-iharkintza*: sistema reproductivo
*Azterkola*: laboratorio
*Bilari*: investigador
*Sormamin*: protoplasma
*Erakunde*: constitución
*Azi-gai*: elemento nutritivo
*Eraldakuntza*: metabolismo

*Gogo narkuw*: sensación del alma
*Baru-sorlikozki*: hormona *
*Jarei bide*: vía eliminatoria
*Sengi*: prole, vástago
*Iragazki*: emuntorio
*Giza-auzi* problema sexual
*Arki*: masculino
*Emeki*: femenino
*Barasaker*: hermafrodita
*Egikari*: activo *
*Arkari*: pasivo *
*Kibikitza* (kirijo-biki-tza): sistema parasimpático (doble) *
*Kimulotza*: Simpático
*Mulo*: ganglio
*Eruate*: conducción
*Beretute*: asimilación

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALTZAINDIA
BILBO
1995 MAR 0 2
11753

# BIBLIOGRAFIA


[1] BIDAURRATZAGA, G. (1943) Auto-biografia [eskuizkribua, Azkue Bibliotekan kontsultagai, IZK 71052].

[2] VANDER, A. (1918): El diagnóstico por el iris. Reconocimiento de la constitución, predisposiciones y enfermedades pasadas y presentes por el estudio del iris, Valencia, Arlandis.

[3] BIDAURRAZAGA, J.A. (1923): El diagostico por el iris, Bilbao, Imprenta de Jesús Alvarez.

[4] BIDAURRATZAGA, J.A. (1927) Argija kirijotz-alija edo argijak gorputza elikatu egiten daula. Iñaki deunaren irarkola. 28, Garibay. Donostian.

[5] BIDAURRATZAGA, J.A. (1929): Fundamentos Científicos del naturismo, Bilbao, talleres Gráficos de Jesús Alvarez.

[6] BIDAURRATZAGA, J.A. (1961): La dieta natural. Regeneración humana con las frutas, Bilbao, talleres gráficos Alvarez Arteche.

[7] BIDAURRATZAGA, J.A. (1964a): Ayunoterapia y el matrimonio, Bilbao, talleres gráficos Alvarez Arteche.

[8] BIDAURRATZAGA, J.A. (1964b): No busques lo que tu tienes, 3ª ed., Bilbao, talleres gráficos Alvarez Arteche.

[9] ALEJANDRO ARTETXE, (2000), Historia de la Medicina Naturista en España, Madrid, ed. Triacastela.

[10] ANTON ERKOREKA (2006): La pandemia de gripe española en el País Vasco (1918-1919), Medikuntza eta zientzia historiaren euskal museoa, Leioa.

[11] ALTONAGA, K. (2003): «Gure prosa zientifikoaren lehen urratsak: Albert Constantin jaun medikuaren *Zuhainen eritarzunaz eta haien arraberrikatziaz*». *Ekaia*, 17:121-137.

[12] ALTONAGA, K. (2004): «Pierre Buruzain jaun mediku hazpandarraren *Pasteur jaun zena* (1896)». *Ekaia*, 18: 147-169.

[13] ALTONAGA, K. (2006): *Etxepare, Aldudeko medikua*. Euskaltzaindia eta Euskal Herriko unibertsitatea. 333 orr.

[14] CHARRITON PIERRES (2008): «*Medikuak Euskal Literaturan*». Euskalingua, 12, 99-106.

[15] IZAGIRRE, KOLDO (1998) *Euskararen historia txikia Donostian 1800-1998* Susa argitaletxea, Zarautz.

[16] Auñamendi entziklopedia http://www.euskomedia.org/aunamendi?idi=es

[17] ZABALA-ARANA, JOSEBA (1921) «*Edesti Deuna*», Guipuzko-Argitaldariya = (Editorial Guipuzcoana), Tolosa.

[18] ZABALA-ARANA, JOSEBA (1931) «*Zenbakiztija* «/ «Nabarriztarra'k» atondu ta Euzko-Ikastola-Batza'k argitalduta--Bilbao: Verdes-Atxirika'tar irarkolea, 1932.

[19] ZABALA-ARANA, JOSEBA (1922) «*Euzkera bakarra biarra ote degu?*»: Euskera. - 3. urtea, 1. zenb. (1922, ilbeltza-epaila), Donostia.

*Esker onez,*

*Kepa Altonaga irakasleari artikulua idaztea proposatu zidalako, eta bidean lagundu duten Anjel Zelaitea idazle eta maisuari, Anton Erkoreka Medikuntza Historiako museoaren zuzendariari eta Karmele Artetxe euskal zientziaren historiaren ikertzaileari.*